

"Zientzia eta teknologiarekin trasteatzen" ikastaroaren balorazioa

Gazteen Euskal Behatokiak 2021eko formakuntza planeko bigarren ikastaroa antolatu du

'Zientzia eta teknologiarekin trasteatzen' ikastaroa antolatu du Gazteen Euskal Behatokiak otsailean. Programa honen helburu nagusia pentsamendu konputazionalaren garapenerako aurki ditzakegun baliabide anitzen ezaguera da, baita zientzia eta teknologiaren gazteen arteko erabilera egokiaren sustatze eta bultzatzea, bereziki gune akademikoetatik at.


Ikastaroa **DeustoLearningLab-eko irakasleek eman dute eta Deustuko Unibertsitateko Ingenieritza Fakultatean ospatu da.**

11 lagunek partehartu dute ikastaroan, honako lanbide-profilak dituztenak:

- Gehienak, % 64, hezkuntza arautuari lotutako lagunak izan dira.
- Beste % 27 gazteen arloko langileak (gazte informazioa, udalak, foru-aldundiak, gazteen elkarteak, gizartean eta hezkuntzan esku hartzen duten taldeak eta beste erakunde batzuk) izan dira.
- Azken % 9k ez zeukan gazteen arloarekin harremanik.

Ikastaroak 15 orduko iraupena izan du, hiru egunetan banatua eta ikasleen batez besteko balorazioak honako hauek izan dira (0tik 10era bitarteko eskalan):

Ikastaroaren balorazioa (batez bestekoa, 0tik 10era doan eskalan)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, ikastaroan parte hartu dutenen artean egindako balorazio inkestetako emaitzak oinarri hartuta